

GIZARTE ERALDAKETA. 15-18 URTEKOAK

# Nekazari-pastoral proiektua



Mozambique (Minheuene)



**Atenditutako pertsonak**

**180**

Gizonezkoak: 60, Emakumeak: 70, Helduak: 50, Haurrak: (haur eskolako haurrak)



**Proiektuan lan egiten duten pertsonak**

**28**

Kontratatuak (soldata-laguntzarekin): 11, Boluntarioak: 17



**Presentación de la realidad social**

Minheuene landa eremu oso pobrea da eta txirotasun asko ditu. Biztanleria nekazaritzaren menpe bizi da. Presentzia, Cabo Delgado hiriburutik bi ordutara dago. Gazteek legez kanpoko meategietan lan egiten dute euren bizitzak aurrera eramateko, ikasketak alde batera utziz. Gazteei nekazaritza eta pastoral proiektuarekin batera laguntzearen helburuak anitzak dira, hala nola meategietatik ateratzeko aukerak ematea, ardurak emanez, familien elikadura hobetuz eta gizarte-eraldaketa pentsamendu bereikioetatik ateraz. Pertsonak formatu ondoren hauek beste batzuk formatzeko, pertsonen autonomia, familietan lankidetzaz bultzatzea...



**Egiten den lanaren deskribapen erraza:**

Taldeko antolaketa dago, hobeto lan egiteko. Talde bakoitzean, taldearen dinamika daraman koordinatzaile bat dago. Orokorrean, gizon-emakumeek lan egiteko lur-eremu bat dute. Lortutako etekinen zati bat beraientzako da, beste bat proiektuarentzat eta beste bat kooperatibarentzat. Kooperatibaren zatia familiei laguntzeko eta proiektuaren iraunkortasunerako da. Esan bezala, elikadura oso garrantzitsua da gehiengoarentzat.



**MUNDUAN, NONB&IT**

Itaka-Escolapios-en proiektu bat



## Logros de los últimos años

- Lorpen oso garrantzitsuak egin ditugu nekazaritza eta abeltzaintza proiektuan. Lehenik eta behin, gazte bakoitzarekin konfiantza lantzean, besteei laguntzeko zerbait egin dezaketela konturatu dira; modu honetan beraien familiarentzat eta gizarte-ingurunearentzat baliagarria izanik. Bigarrenik, proiektuak gazteen sozializazioa erraztu du. Laguntzarako agenteak dira orain beraien artean, herrian eta inguruko herrietan. Pembako elizbarrutian, batzuetan gazteek beraien produktuak misiolariei saltzen dizkiete.



## Etorkizuneko asmoak (hobekuntza ildoak)

- Herriaren, gazte guztien, herritarren eta inguruko pertsonen garapenerako giltzarria da. Proiektu hau oso garrantzitsua dela uste dugu, legez kanpoko meategietara doazen neska-mutilak salbatzeko indar gehiago egiten laguntzen duelako. Gazte bat salbatzean, familia bat pobreziatik salbatzen delako.
- Etorkizuneko helburu nagusiak honako hauek dira: lan egiteko traktore bat izatea, autonomoagoak izatea, lortzen den ur kantitatea handitu eta hau familiei saltzea, pobreziaen aurka borrokatzea eta Haur-eskolari elikaduran babestea. Nekazaritza-prestakuntzarako zentro bat sortzeko aukera, gazteek prestakuntza jaso dezaten.